

'Solidarioek' okupatu egin dute Hagako Nazioarteko epaitegia

Itoizko urtegiaren aferan Justiziak jokatu duen papera salatu dute

Erredakzioa / Donostia

Itoitzekin Elkartasuna taldeko zortzi kidek eta Europako hainbat herrialdetako elkarte ekologisetako kideek Hagako Nazioarteko Justizia Epaitegia okupatu zuten atzo hainbat orduz. Ekologistek Itoizko urtegiaren aferan Justizia jokatzeko ari den papera salatu nahi izan zuten epaitegi horretan egindako ekintzarekin.

GOIZEKO 11:00ak aldera, Itoitzekin Elkartasuna taldeko zortzi kide, Itoizko kable mozketan parte hartu zuten guztiak alegia, eta Europako hainbat herrialdetako elkarte ekologisetako bederatzi lagun gehiago Hagako Nazioarteko Justizia Epaitegian sartu ziren, hiru taldetan banatuta, turistak bailiren.

Epaitegia kokatuta dagoen jauregiko dorre handira igotzea lortu zuten lehenengo taldeko kideek. Dorrean jarrita zeuden bi aldarmiotatik zintzilikatu, eta ingelesezko eta nederlanderazko leloa zuten bi pankarta eskegi zituzten: *Lurraren txikizioa gelditu* zioen bat, eta *Aski da izadiaren aurkako sarraskiekin* besteak.

Beste talde bateko kideak Entzutegiko teilatu nagusira heltzen saiatu ziren, baina izotzaren eta bestelako zailtasunen ondorioz, saiakera bertan behera utzi eta ondoko teilatuan geratzea deliberatu zuten. Han *SOS Itoiz* leloko pankarta jarri zuten ekologistek.

Hirugarren taldeko kideak jauregiko ate nagusian kateatu ziren, eta *Lurraren txikizioa gelditu* zioen pankarta paratu zuten.

Alderdi guztien kritikak

Ekintzaile guztiak espetxeratuak antzina eramaten ohi zituzten jantziak zituzten soinean, marra zuri-beltzekin. Horrela, salatu nahi izan zuten Itoizko urtegi kableak mozteagatik lau urte eta zortzi hilabeteko kartzela zigorra ezarri ziela Espainiako Justiziak Itoitzekin Elkartasuna taldeko kideei.

Epaileak zigorra ezarri zuten *solidarioei* lanak zaintzen zituen zinpeko guardia bost minutuz atxikitzeagatik, eta bahiketa leporatu zuten. Solidarioek salatu zuten haiek jasotako zigorra «politikoa» izan zela, Segundo Marey bahitu zuten GALEko kideei jarritako zigor bera ezarri zielako Espainiako Auzitegi Gorenak beraiei.

Halaber, Itoizko urtegiaren



MIKEL MARTINEZ

Itoitzekin Elkartasuna elkarte kideak, artxiboko irudian, joan den urrian Estrasburgon agertu zirenean.

inguruko nondik norakoak argitzeko eskupaperak banatu zituzten herritarren artean.

Ekologistek gogoratu zuten Espainiako Auzitegi Nazionalak eta Auzitegi Gorenak urtegiaren inguruan emandako epaiak. Hain zuzen ere, bi epaitegiek debekatu zuten urtegia 510 metroko kotatik goiti betetzea, hegaztien babeslekuak zaintzeko. Proiektu ofizialak, baina, aurreikusten du 590 metroraino iritea ura.

«Epaile berberak, urtegia legez kanpokotzat jo ondoren, lanak burutzea baimendu diete enpresa eta gobernuari, beraiek sortutako legea herriarentzat bakarrik izango balitz bezala».

Itoizko zortzi solidarioek ekintza bat egin zuten duela aste batzuk Londresko Milurteko Norian.

Kide guztiak komisaldegira

HAGAKO Justizia Epaitegia sartu ziren ekologista guztiak atxilotu zituen Holandako Poliziak atzo, baina iluntzerako denak askatu egin zituzten. Hasiera batean Poliziak adierazi zuten ekintzaileei ez zutela inolr atxilotuko 14:00ak baino lehen ekintza bukatzen bazuten.

Alabaina, 12:30etan do-rraren oinean zeuden bi

pertsona atxilotu zituzten, eta pixka bat beranduago epaitegiaren ate nagusiari kateatu zitzaizkion laurak atxilotu zituzten.

Horrela, banaka-banaka, ekintzaile guztiak atxilotu eta komisariara eramane zituzten.

Iluntzeko seietan hasi ziren ekintzaileak libre uzten, eta zortzial alderako denak aske utzi zituzten.

Eibar-Gasteiz autobidea doan izatearen alde agertu da berriro Arabako oposizioa

■ Errepideari buruz adostu mozioa errespetatzeko eskatu diote gobernuari

I. Santamaria / Gasteiz

ARABAKO Diputazioan oposizioan dauden alderdiek Eibar-Gasteiz autobidea doan izan dadila eskatu zioten berriro PP eta UAk osatzen duten gobernuari, Antonio Aguilar Herrilan ahaldu-nak atzo eginiko agerraldian esan zuenez.

Joan den urriaren 14an alderdi guztiek aho batez (PP eta UA barne) onartu zuten mozioan Eibar-Gasteiz bide-saririk gabekoa izatea.

Aguilar diputatuak, aldiz, PICA-n (Arabako Errepide Plan Orokorrean) aurreikus-ten den errepidea autobidea dela esan zuen. PICA foru araua izanik, mozio batek ezin duela aldarazi argudiatu zuen PPkoak.

Juan Jose Otxoa de Eribe EAJko biltzarkidearen irudi-ko, ordea, PICA 1989koa izan-ik, Biltzar Nagusiek delibe-ratu beharko dute zer egingo den, eta mozioan lortutako adostasuna azpimarratu zuen.

Javier Alejo PSE-EEko ordezkariaren iritziz, Aldun-diko gobernuak «ez da argia izaten ari» Eibar-Gasteiz errepidearekin. Alejo aurre-ratu zuenez, PSEk mozioa bete dadin «zorrotz» jokatu-ko du.

EAKo Manuel Ibarrondok Biltzar Nagusien erabakia errespetatu dezala eskatu zion Herrilan ahaldu-nari. EHk, berriz, autobidea egiten bada orain dagoen errepidea kon-ponduko ote den ala ez galde-tu zuen.

Deba Garaiko Intertzeptorea eta Adar Osagarriak. 3A. Fasea. Aretxabaleta eta Arrasate Bitarteko Intertzeptorea (Gakoa: 28-SC-42/1997)

1999ko azaroaren 19ko Gipuzkoako Aldiz-kari Ofizialean, 222 zk.an, DEBA GARAIKO INTERTZEPTOREA ETA ADAR OSAGA-RRIAK. 3A. FASEA. ARETXABALETA ETA ARRASATE BITARTEKO INTERTZEP-TOREA Proiektua (28-SC-42/1997) onartu dela dioen iragarkia argitaratu da.

Iragarkian, hartu beharreko ondasun eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakatua ere ageri da.

Donostia, 1999ko azaroaren 19a



Gipuzkoako Foru Aldundia
Obra Hidrauliko eta Hirigintza Departamentua